

# noaua

**Erraustegien arriskuez  
ohartarazi dute beste  
behin ere OEIT taldeko  
medikuek**

**Usurbilgo Larrialdi  
Mahaiak asanblada  
deitu du martxoaren  
17rako Sutegin**

**Igandean ‘Laburbira’,  
film laburren proiektzioa**



**“Usurbilgo emakumeok ere  
aske izan nahi dugu”**



*Jantzi kolorez zure etxe,  
balkoi zein lorategia!*



San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



**Zetako  
bidea**  
(Uzbekistan)

**AZKEN  
PLAZAK**

**BIDAIK  
TALDEAN**



**Eslovenia  
& Istria**

**NOAOA**  
BIDAIK

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

**943 37 36 13** info@noaoa.eus **noaoa.eus**



## *Lukainkategi Erretegia*



Geure plateren zapore paregabeak, Añorgan jateko aukera  
hoberenen artean kokatzen gaitu.

Usurbiletik oso gertu, Txikierdiko aldatatik gora kotxez 3 minutura!

Astean zehar eguneko menu zabala dastatu dezakezue eta asteburuan karta  
bikainaz gozatzeko aukera duzue.

**Aingeru Zaindaria bidea 85, 20018 Añorga Tel. 943 37 14 44**

## Albiste iruditan

## Orkatzak begi bistan



Kabieneren twitter kontuak zekarren albiste: "Osinalde industrialdearen erdian egonagatik ere, leihotik horrelako gauzak ikusten ditugu: orkatzak! Antton Korta kabieneak ateratako argazkia". Aurretik ere bistaratu izan dituzte. Argazkia ordea, martxoaren 5ean eginga dago.

## Laburrean

Lurdes Huetaren  
argazkiak Artzabalén

Lurdes Hueta argazkilariaren lanak Artzabal jatetxean dituzue egunotan ikusgai. Martxoaren 31ra bitarte egongo da irekita.

Maria Jesus Etxeberriaren  
argazkiak Santuenean

"Inguruko paisaiak" izeneko argazki erakusketa martxoaren 29ra arte ikusgai izango da jubilatuen tabernan. Egunero, 9:30-22:00 artean. Astearteetan itxita.

Xauxar Txosna  
Batzordearen lehen bilera

Usurbilgo jaiak antolatzeko lehen bilera deitu du Xauxar Txosna Batzordeak ostiralerako, martxoaren 13rako 22:00etan Potxoenean.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordintzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Inaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia





Maddi Aburruza

## Barne gatazka

**Z**uei ez al zaizue zaila egiten egin nahi ez duzuen zerbait egitea? Hori da niri gertatu zaidana azken egun hauetan.

Unibertsitatean, Publizitate eta Harreman Publikoetako graduako azken urtean nago eta lehen mailakoei prentsaurreko bat egin behar izan genien aurreko astean. Taldeka jarri eta guk nahi genuen gaia aukeratzeko uzteaz gain, asmatutako elkarte bat sortu behar izan genuen prentsaurreko hori prestatzeko. Pil-pilean dagoen gaia, Coronavirusaz gain, Zaldibarko zaborregiarekin gertatzen ari dena da. Baina, gure irakaslea ari da gai horretan buru belarri, beraz, gai horretan jardutea zaila izango genuela pentsatu eta erraustegiaren gaira jo genuen, martxan jarri berri duten erraustegira.

Ni usurbildarra izanda, gai nahiko "erraza" izango zela iruditu zitzaigun eta buruari bueltak ematen hasi ginen. Informazioa biltzen hasi, ideia batzuk paper

zurian jartzen hasi eta gure elkartearen izena sortu genuen: LARREGI. Gure ideia, erraustegiaren aurkako beste elkarte bat sortzea izan zen hasiera batean; Udarregi Ikastolako irakasle, ikasle eta ikasle ohiek osatua. Hortik izena, ia Udarregi irakurtzeko aukera dagoen hitza. Aurrealdeko u eta d hizkiak kendu eta l hizkia jarrita pentsatu genuen ondo geratuko litzatekeela lehen aipaturiko hitza. Larregi, gehiegi.

Zergatik ikastola sartu hemen? Azken finean, bertan dauden umeak izango dira etorkizunean arazoa gehien jasango duten pertsonak, txiki txikitatik hau guztia bizitzen ari direnak. Beraz, beraiek ere borroka horretan parte hartzeko aukera zuzena izan dezaten sortu nahi izan genuen elkarte hau.

Kontua da, ez genuela ezer ondo finkatu, ez genekien ondo nondik nora jo, zer egin... orduan, gure ikaskide batek eman zigun ideia, gure lana burutzeko "txitxa" gehiago emango ligukeela esanez. Erraustegiaren aldeko

elkartera sortzea. Orduan mutu geratu nintzen, ez nekien zer esan, ez nola erreazionatu berak emandako ideia horri. Gainera, nire taldekideak zuzenean niri begira jarri ziren, ea zer erantzuten nuen jakiteko, baina, nire burua oraindik ideia hori asimilatu nahian zegoen.

Taldean lau neska ginen eta gainontzeko hiruei ideia gustatu zitzaienten, beraz, ni ideiarekin aurka egon ala ez, horrekin aurrera egin behar genuela iruditu zitzaidan. "Shock" momentu horri buelta eman eta taldean hitz egin genuen. Eurek esaten zidaten, konbentzitu nahian edo, egia zela aldeko elkarte bat sortuko bagenu gero prentsaurrekoa egiterakoan galdera gehiago egongo litzatekeela eta jendea gehiago haserretuko litzatekeela. Hala ere, ni ez nengoen seguru egitera gindoazenaz. Nik pentsatzen dudanaren guztiz aurkakoa egitera gindoazen, erraustegiaren aldeko elkarte bat.

Oraindik, "aldeko" hitza idazten dudanean kosta egiten zait ea benetan hori idazten

ari naizen sinestea, eta begietan min ematen dit.

Hala ere, azkenean aurrera egin genuen gure elkarteari HAUSPOTU izena jarri eta bere logoan hosto berde bat agertzen zelarik. Diskurtsoan, elkarrekin egingo zituen ekintza ezberdinen berri eman genuen. Gainera, prentsaurreko horretan hitz egiten zuenetako bat ni izan nintzen, zoriz aukeratu genituen hizlariak eta horietako bat izan nintzen.

Diskurtsoan, aurpegi ona jartzeko esfortzu handia egin behar izan nuen, ni benetan aurka nagoen gaibati buruzko bestelako iritzia eman behar bainuen. Oraindik sinistu ezinik nago ea nola lortu nuen pentsatzen, beti esaten baitadate nire aurpegiarekin pentsatzen dudana guztia espresatzeko gai naizela.

Egia da dena ondo atera zela eta egindako lanaren gaia nahiz eta ez gustatu, gustura geratu ginela dena bukatu zenean. Baina, zein zaila den gustatzen ez zaizun hori egitea.

Imanol Ubeda

Maddi Aburruza

Luis Aranalde

Aritz Gorriti

### Ika-mika

## Errefusaren lagin bat karakterizatuko dugu larunbat eguerdian frontoian

**U**surbilgo herrian hiri hondakinen gaikako bilketa Atez Ate hasi ginela 11 urte beteko dira. Horren harira, industria eta komertzioetan bildutako errefusaren lagin bat karakterizatuko dugu publikoki. Ezaugarritze edo karakterizazio ekintza hau datorren martxoaren 14ean, larunbata, eguerdiko 12:30ean

egingo dugu herriko frontoian. Lanketa hau egiteko Erraustegitaren Aurkako Mugimenduko jende eskarmentudunaren laguntza izango dugu.

Usurbilen Atez Ateko gaikako bilketari 2009an ekin zitzaionetik, sortzen den errefusaren kontaketa hiru iturritan bereiztu izan da: etxeak, kale garbiketa eta industriak + ko-

mertzioak. Hauen artean, betidanik errefusa gehien sortzen duen iturria, industriak + komertzioak izan dira. 2019ko emaitzetan ere errefusa guztia- ren %58 suposatzen du iturri honek, etxeetan sortutakoak berriz, %12 bakarrik.

Errefusa murrizteak gaikako bilketa hobetzeaz gain, hiri hondakinen kudeaketan arazo

gehien sortzen duen zatikia murriztea ere badakar.

Karakterizazioa egiten den bitartean lanketa honen inguruko azalpenak emango dira, eta bereiztu ondoren, hondakin zatiki guztiak pisatu eta emaitzak publiko egingo dira.

**Anerreka Ingurumen Elkarteak.**

# Usurbilek pediatria euskalduna izatea exijitu dio Udalak Osakidetzari

**E**uskaldunok egunerokoan pairatzen ditugun hizkuntza-eskubideen urraketen adibide argia da egun, Usurbilgo anbulatorioan bizi den egoera. Zehazkiago esanda, haur txikiek eta haien gurasoek bizi dutena. Oraindik bistan denez, Euskal Herrian osasungintzan, beste hainbat eremuetan bezala, ez da bermatzen langileak euskaraz aritzeko gai izatea. Ez da bermatzen, herritarrok osasun-etxeetan euskaraz artatuak izateko dugun eskubidea.

Horren adibide dugu aipatu moduan egun, Usurbilgo anbulatorioa. Euskararen arnasgunea dugun udalerrri honetako osasun-etxean aldi baterako jarri duten pediatria berriak ez daki euskaraz. Aurrekoak bai bazekien, baina “oposizioak gaintuta, ezin izan zuen Usurbilgo postua hartu, Osakidetzak ez baitzuen eskaini”, Usurbilgo Udalak berri eman



Behin-behinean pediatria bat jarri dute anbulatorioan. Eta ez daki euskaraz.

## UDALAREN ESKAERA

**“Euskara da nagusi herrian, eta osasun etxean ere euskaraz hitz egin ahal izatea berma dadin nahi du Udalak”**

duenez. Ondorioz, behin-behinean pediatria bat jarri dute anbulatorioan. Eta ez daki euskaraz.

Herritarren kexuei erantzunez, salaketa bana aurkeztu du

Udalak Behatokian eta Elebidun. Usurbilgo Udala Osakidetzarekin jarri zen hartuemanetan. Bi eskaera bideratu zizkion; orain arteko pediatria bertan geratzeko, eta hori posible ez balitz, langile berria euskalduna izatea.

## Hizkuntza eskakizuna betearazteko eskaera

Osakidetzak Udalarri jakinarazidionez, epe luzerako kontratazioa egiteko hautaketa prozesua abiatu dute. Pediatria berria

apirilean anbulatorioan lanean hastea aurreikusia dagoela adierazi du Udalak ohar bidez. Horrek esan nahi du, gutxienez, apirilera arte, Usurbilek ez duela pediatria euskaldunik izango. “Usurbildarren hizkuntza eskubideak betetzeko eskatu dio Osakidetzari, alegia, pediatria berriak postuari dagoen hizkuntza eskakizuna bete dezala. Izan ere, Usurbil UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da. Euskara da nagusi herrian, eta osasun etxean ere euskaraz hitz egin ahal izatea berma dadin nahi du Udalak”.

Bestetik, urte luzez pediatria izandakoak erretiroa hartu eta bere ordezkarekin egoera egonkortzen ari zela datorren aldaketa hau kezkarritzat jotzen du Udalak, “etor daitekeen langilearen profesionaltasuna zalantzan jarri gabe, gaur egungo pediatriak dagoeneko herriko umeak eta errealitatea ezagutzen dituelako”.

## “Herritarrek ezin dute eroso sentitzen diren hizkuntzan komunikatu”

Anbulatorioan dagoen pediatria bakarrak euskaraz ez dakiela eta izan diren kexuen harira, gutun bana igorri diete Usurbilgo Udalak eta UEMA-k, Donostiako ESiko pertsonaleko zuzendariari, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteari, Eusko Jaurlaritzako osasun sailburuari eta Osakidetzak giza Baliabideetako zuzendariari.

Anbulatorioa ekarritako pediatriak euskaraz ez dakiela berri ematen du gutunak. Behin behinean lanean jardunda ere, “behar-beharrezkoa da ordezkapenak egitera datorren profesionala ere euskalduna izatea”. Datorren pediatria elebiduna izatea eskatzen du Udalak, “eta irizpide bera

manten dadila etorkizuneko ezein lanpostu-aldatze zein kontratazioetan”.

Hala ez izateak “esan nahi du haur guztiak gaztelaniaz artatuko direla aldaketaren bat egin artean”. Horrez gain, herritarrek kexu direla ohar tarazten du gutunak, “ezin dutelako pediatriarekin eroso sentitzen diren hizkuntzan komunikatu”. Herritarrek eroso euskaraz moldatzen direla ohartarazita, haien hizkuntza eskubideak, egoera soziolinguistikoa errespetatzea eskatzen du.

Usurbil euskararen arnasgunea dela gogorarazten diote osasun alorreko arduradunei, %78ko euskaldun indizea duela, Udalerrri Euskaldunen

Mankomunitateko (UEMA) kidea dela. Hizkuntzak osasungintzan duen berebiziko garrantzia nabarmentzen du Udalak, legeak ere hala jasotzen duela, “osagilearen eta pazientearen arteko harremanean konfiantza eta empatia lortzeko funtsezkoa” baita. Ondorioz, euskalduna den pazienteari edo hizkuntza horretan artatua izatea nahi duenari, “zerbitzua euskaraz bermatu behar zaio” dio Udalak.

## Hizkuntza-eskubideen urraketak salatzeko bideak

**Usurbilen**  
Usurbilgo Udalak edota NOAA! Kultur Elkarteak bere garaian kexak jasotzeko buzoiak jarri zituzten. Kexu

edo salaketak guneotatik bidera ditzakezue.

## Behatokia

Doako Euskararen Telefonoa zerbitzua dute bertan. Kexatzeko, jokabide eredugarriak txalotzeko edota argibideak edo aholkularitza jasotzeko. Konfidentziala da.

behatokia.eus  
690 93 24 72/948 146 172  
telefonoa@behatokia.eus

## Elebide

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua da Elebide. “Zure kexak, kontsultak eta iradokizunak” egin ditzakezu, euskadi.eus atarian sartuta.

# Jontxu Martinez Zarrabeitia, 'Harri orri ar' antzezlaneko aktorea: "Gure langintzatik bizi nahi dugu"

**U**sansolotarra sortzez, Usurbilen bizi da egun. Txikitatik izan duen sorkuntzarako zaletasuna ogibide bilakatu du. Bertsolaria ere baden arren, argi du; ezin du antzerkirik gabe bizi. Bi lanekin dabil egun. Haietako bat dakar asteburuan Donostiara; "Harri orri ar". Bete-betean ukitzen du sortze lan honen gaiak lerrootako protagonista, Jontxu Martinez Zarrabeitia.

## NOAUA! Txikitatik argi zenuen artista izan nahi zenuela?

**Jontxu Martinez Zarrabeitia:** 7 urterekin hasi nintzen antzerkia egiten ikastolan, eskolaz kanpoko ekintzetan, DBHn antzerki talde bat genuen, Bilbon gaztetxoentzako antzerki eskola batean aritu nintzen, Batxilergoan tailer amateur batean... Administrazio eta enpresa zuzendaritza ikasten hasi nintzen. Halere antzerkia egiten jarraitzen nuen. Gradu amaieran uztea erabaki nuen, antzerkigintzan sartzea buru-belarri. Arte dramatikoko diplomatura egin nuen.



Usansolotarra Usurbilen bizi da gaur egun. Asteburuan Donostiako Antzoki Zaharrean arituko da "Harri orri ar" antzezlanarekin.

### JONTXU MARTINEZ

**"Askotan lan prekarioa da. Baina aktorea naiz eta honetatik bizitzen ahalegintzen nabil"**

Bertan "Hamlet" edo "Yerma" antzezlanak egin genituen. Italiako antzerki jaialdi batera joan ginen. Ramon Bareak Bil-

bon zuzentzen duen "Pabellon 6" aretoan gazte konpainia bat osatu nahi zuten, antzerki munduan aritzeko aukera eskaintzeko. Ni iaz, laugarren promoziora aurkeztu eta aukeratu ninduten. Bertan "Zer gertatu zitzaion Ana Garciari?" obra egin genuen. Hori egiten ari nintzen bitartean deitu ninduten, "Harri orri ar" antzezlaneari parte hartzeko.

**Ogibide gisa antzerkigintza hautatzea erabaki ausarta izan zen, duen langabezia-tasa altua jakinik?**

%60 edo gehiagoko langabezia-tasa du. Beste lan batzuetan dabilen aktore lagunak ditut. Baina antzerkirik gabe ezin naiz bizi.

**Orain da garaia esan nuen. Beste ikasketak ere amaitu nituen.**

## "Uste dut publikoa badagoela, baina ez da ofizio erraza"

**NOAUA! Zaletasun batekin lotu arren, inoiz baino ozengoa aldarrikatu nahiko duzue zuena ere ogibidea dela ezta?**

**Jontxu Martinez Zarrabeitia:** Jendeak zaletasun moduan hartzen du aktoreen langintza. Badirudi edonor izan ahal dela aktorea eta batzuetan ekoiztetxe handiek badirudi hori bultzatzen dutela. Irudi on bat duen pertsona bat jartzen dute, nahiz eta urteetan baden jendea film edo telebistaletan parte hartu gabekoa, ezaguna izan ez arren, urteak daramatzana antzerkian lan eta lan. Ondo dago antzerki amateurra baina ulertu behar

da jende profesionala dagoela eta profesionalok ere behar batzuk ditugula. Bizi behar dugula, gure langintzatik bizi nahi dugula.

**Une honetako aldarri nagusia izango da noski?**

Askotan lan prekarioa da. Aktorea naiz esan eta aktore izateaz gain ze lan duzu galdetzen dizute. Baina aktorea naiz eta honetatik bizitzen ahalegintzen nabil.

**Sektore hau osasuntsu dagoela esango zenuke?**

Uste dut publikoa badagoela, antzerki obrak daude de-

nentzat, gustu guztientzat. Baina ez da erraza. Publiko bati iruditu dakioke garestia antzerki obra baten sarrera, askotan ez duelako baloratzetzen zer nolako lana dagoen atzetik, aktoreek soldata bat jaso behar dutela... Antzezlanaren arabera, antzoki asko hutsik egoten dira. Antzerki obra oso txukunak eta antzoki erdia hutsik ikustea, egoera batzuetan tristeza izaten da.

**Bertsolaritzan ere aritzen zara, ezta?**

Etetik ere jaso nuen arren, 10 urterekin eskolan hasi eta zaletu nintzen. Usansolotarra

naiz baina Galdakaon ikasi dut. Duela pare bat urte Bizkaiko Txapelketara aurkeztu nintzen. Oso urduri kantatu nuen. Nahiko esperientzia polita eta txarra izan zen aldi berean. Ez nintzen sentitu hain urduri sekula oholta batean gainean. Orain perspektibaz ikusita, nahiko txukun ibili nintzela uste dut. Nahiko haserre irten nintzen nire buruarekin. Berrito txapelketa dator eta berrito aurkeztu naiz. Usurbilen bada bertso-eskola bat, bada taldetxo bat eta bertara batu naiz. Gipuzkoan entrenatuta agian hobeto egingo dut Bizkaian.

# “Motxiladun umea izatea egokitu zait. Usurbilen bizita, Xuaren egoerak asko hunkitzen nau”

**NOAUA! Txapelketaz gain, bi antzezlanekin zabiltza orain.**

**Jontxu Martinez Zarrabeitia:**

Biek gai soziopolitikoak jorratzen dituzte. “Zer gertatu zitzaion Ana Garcinari?” antzezlanak desberdinenganako biolentziak. Biolentzia horiek gehienetan jai giroan gertatzen dira eta horren inguruan egiten dugu analisia; biolentzia horiek islatu eta gero zer egin dezakegun biolentzia horien kontra. Hausnarketarako oso ondo dago. Bigarren antzezlanak “Harri orri ar” izena du, euskal gatazkari buruzkoa da. Denok sufritu dugun minaren, aurreiritzien eta ezkutatu dugunaren inguruan hitz egiten dugu. 7 pertsonaia dira, bakoitza era batekoa, eta denoi zerk lotzen gaituen nabarmen-tzen da, nahiz eta desberdinak izan. Elkarbizitzaren inguruan oraindik lan asko dugu egiteko Euskal Herrian. Gaiak bete-betean jotzen nau. Aita 21 urtez izan dut espetxean, motxila-



“Aktore bat beti egon behar da formakuntzan, ikastaroren bat egin edo gauzak berriak ikasten”.

## JONTXU MARTINEZ

**“Ez dakit inoiz uzten diogun motxiladun ume izateari. Nahiz eta bidaiak ez egin, beti duzu ardura hori”**

dun umea izatea egokitu zait. Ez dakit inoiz uzten diogun motxiladun ume izateari. Na-

hiz eta bidaiak ez egin, beti duzu ardura hori. Orain Usurbilen bizita, Xuaren egoerak asko hunkitzen nau. Badituzte inguruan halako egoera bizi izan duten umeak, ezagun eta lagunak, orduan beti duzu presente gaia. Nahiz eta orain asteburuetan antzerkia egiten egon, badituzte presente asteburuetan milaka kilometro egiten dabiltzan senide guztiak.

**Bi antzezlan hauekin gure arte-ra zatoz.**

“Harri orri ar” antzezlanarekin Donostiara; martxoaren 12an DFerian gaztelaniaz, eta 13an eta 14an Antzoki Zaharrean euskaraz. Ana Garciarena eskaintzen hasi ginenean oso harrera ona izan zuen, ia beti sarrerak agortzen ziren.

**Hurrengo hilabeteetan zure jarduna obra hauen bueltan bideratuko duzu?**

Bai. Ikusi beharko da udazkena nola datorren. Maiatzean emanaldiak amaituko dira. Emanaldi berriak irtengo diren ez dakigu; hori edo langabezia-za goaz.

**Ohikoa duzue lan mundutik langabezira jauzika ibiltzea?**

Askotan ikusten duzu aktore bat film batean. Berak duela hilabete batzuk grabatu zuen lana arrakasta izaten ari den unean, hilabeteak daramatza langabezian.

## Autoestimua eta autozaintza feministari buruzko tailerra

**M**artxoaren 8ko ekimenen testuinguruan, “jada maitasunagatik sufritzen ez duten emakumeak: autoestimua eta autozaintza feminista” tailerra antolatu du Udalak Coral Herrerekin Potxoenean. Erdarazkoa izango den saiorako izen ematea doan, bideotatik egin ahalko da: [parekidetasuna1@usurbil.eus](mailto:parekidetasuna1@usurbil.eus)/ 943 377 110.

Martxoaren 28an izango da tailerra, 9:00-14:00 artean. Baina goizeko saioa betetzen bada 15:00-20:00 artean bigarren bat egitea aurreikusten da.



Coral Herrerek eskainiko du tailerra. Martxoaren 28an, Potxoenean.

“Maitasunak jada erasaten ez dituen emakumezkoak: autoestimua eta autozaintza feminista”. Hori da tailerraren izenburua osoa. “Autoestimua, norbere

buruaren ezagutza eta ahalduntze pertsonal zein kolektiboa landuko ditugu”, Udal Parekidetasun Sailetik aditzera eman digutenez. “Gure burua gehiago eta hobeto maitatzen ikasiko dugu, eta maitasunaz gozatu ahal izateko oinarriak zaintzen”.

**Sare afektiboen garrantzia**

Berdintasunezko bikote osasuntsuak sortzeko, tresnak garatuko dituzte “tratu txar zein indarkeria orotik aske. Bakardadeaz, eta bizitzeko eta menpekotasun emozionalari aurre egiteko sare afektiboek duten garrantziaz ariko gara”.

## Udal liburuzain laguntzaile izateko lan deialdia

Lehiaketa-oposizio sistema bidez betetzeko deialdia egin du Usurbilgo Udalak. Martxoaren 2an eman zituen argitara oinarriak. Orduetik 20 eguneko epea dute interesdunek eskabideak aurkezteko. Lanpostu honetan, erabiltzaileari arreta eskaini beharko da, zerbitzua ongi erabiltzen dela ziurtatu, liburuak eta maileguak kudeatu, funtsen erosketak, katalogazio eta sailkapenean lagundu, irakurzaletasuna bultzatu. Informazio gehiago udal erregistroan, [usurbil.eus](http://usurbil.eus) atarian edo martxoaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

# Usurbil, larrialdi egoera latzean

## Usurbilgo Larrialdi Mahaia

Usurbil, gure herria, **larrialdi egoera** latzean dago eta horregatik ate joka gatoz. Martxoaren amaierarako martxan jarri nahi dute begi-bistatik atera ezin dugun Erraustegia.

Bagenuen kezkatzeko arrazoi nahikorik, baina **Zaldibarren** gertatutakoak alarma guztiak piztu ditu. Susmo txarrenak baieztatu dira eta argi utzi dute prest daudela Zubietan edozein hondakin, baita toxikoak ere, erreko dituztela, **industrialak eta arriskutsuak** barne.

Hori bai, Zubietan ez dira Dioxinak egunero neurtuko edo laginak CSIC-eko laborategietara bidaliko, Zaldibarren egiten ari diren bezala.

Zubietan Ingurumen baime-nak behartzen die soilik urtean 24 ordutan neurtzea (6 ordu hiruhileko bakoitzeko).

Eta gure kasuan **dioxinak** 35 urtez jasango diitugu (kalte larriak eragiteko moduan, beraien esanetan).

Osasunaren ikuspegitik **onartezina**. Ezin dugu onartu gure haur, nerabe, emakume haurdu, gaixoak eta adineko herritarrak (populazio kaltebera) eta populazio oren **osasuna arriskuan** jartzea.

Ezin dugu onartu gure **ama-lurra eta ingurumena** metal astunez, dioxinaz eta



“Herritarroi elkartu eta aurre egitea dagokigu, protesta forma eraginkorrago eta irmoagoen garaia iritsi da, baketsuak bezain zilegiak. Herritarrok bat eginik eta tinko”.

### LARRIALDI MAHAIA

**“Asanblada ahalik eta zabalena antolatu dezagun, eman beharreko erantzuna eztabaidatu eta erabakitzeko. Asanblada, martxoaren 17an asteartea, 18:30ean egingo dugu Sutegin”**

bestelako Kutsagai Organiko Iraunkorrez kutsatzea.

Ezin dugu onartu **gure herria** jendez hustutzea eta ekonomiko zein urbanistikoki **desertizatzea**. Hori baita gertatuko dena erraustegia martxan jartzen den unetik aurrera.

**Usurbilek** jasango dituen kalteak ez dira beraz soilik osasunari eta ingurumenari dagozkionak izango, bestelakoak ere jasoko ditu: ekonomikoak, soziologi-

koak, kulturalak, soziolinguistikoak, eta abar.

Alegia, **gure herriaren izaera, izana eta etorkizuna da jokoan** duguna. Hori horrela, altxa eta elkarrekin aurre egin beharko genioke eta azkar gainera, ez da horrela?

Azken urte hauetan zeuden bide guzti guztiak jorratu dira: mobilizazioak, parte hartze prozesuak, Hondakinen Plan Alternatiboaren idazlana (azken bi hauek Hitzartu prozesuan herritarren ekarpen ekonomikoarekin), Europako Instituzioen aurrean salaketa, Errekurtsoak epaitegietan...

Gipuzkoako agintariek baina bide guztiak itxi dizkigute, industria eta interes ekonomikoen mesedetan.

Baina **ez gaude amore emateko**, baizik eta gure eskubideak

babesteko prest! Behar beste neurri hartzeko prest politikari bihozgabeek gure aldarriak aintzat hartu arte. Historian gertatu ohi den bezala, eskubideak lortzeko, herritarroi elkartu eta aurre egitea dagokigu, **protesta forma eraginkorrago eta irmoagoen garaia iritsi da, baketsuak bezain zilegiak. Herritarrok bat eginik eta tinko.**

**Antolatu** dezagun apirila artean eman beharreko erantzuna (erraustegia martxan jartzeko ezarri duten unea eta erkideko hauteskundeak), elkarrekin erabaki ditzagun abiatzea, antolaketa eta erabaki oro. Beste herriekin koordinatuko genituzke ekimenak (Lasarte, Andoain,....., Zaldibar ingurua, Zalla), batzuekin era iraunkorrean, besteekin unean-unean. Ezin dugu denborarik galdu!

Asanblada ahalik eta zabalena antolatu dezagun eman beharreko erantzuna eztabaidatu eta erabakitzeko. **Asanblada, martxoaren 17an (asteartea) 18:30ean egingo dugu Sutegin.**

Beraz, har ezazu idatzi hau sarrera gisa zeren une garrantzitsu honetan gonbidapen zuzena igortzen dizugu Larrialdi Mahaian partaide izan zaitezten. Martxoaren 17an elkar ikusiko dugulakoan.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

**Patxi**  
PatriMahaia  
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



# BAZKIDEEN TXOKOA



martxoaren 20an Zozketatuko dugu:

**AIALDE-BERRI  
SAGARDOTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO  
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN  
TXOTXI!

**noaua! euskararen aterpe**

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

MARTXOAK 15, IGANDEA

## Laburbira

Euskarazko film laburren XVII.zirkuitua - 2020

MARTXOAK 15, 18:00 SUTEGIN



**GAU BELTZA**  
Euskaltzalen Topagunea



**URAK DAKARRENA**  
Marilyn taldea



**ANTI**  
Josu Martinez



**TIGRE BAT**  
Amaia San Sebastián



**PIL PIL**  
Kristina Zarita



**MAMARRO**  
Ibon Iza Totorika



**KATEAK**  
Yolanda Mazkieran



**JAUZI ETA PRIXT**  
Maitane Eyheramato



**HARRIA HERRIA**  
Dimégaz Kultur Elkartea



**noaua**

# Badator Laburbira

**L**aburbira euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria herriz-herrri ibiliko da martxoaren 9tik apirilaren 8ra arte. Film laburren zaleei mezezi duten gozatua emateko, euskarazko zinegintzaren dosi txiki eta freskoak zabalduz. Usurbildik ere pasako da Laburbira: igande honetan, Sute-giko auditorioan.

Igande honetako 9 film laburrek osatutako kultur ekitaldia izango da. Sortzaile gazte zein esperientzia duten zuzendariak sortutako filmekin ordu bete inguruko emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu. 18:00etatik aurrera, Sutegin.

Euskaltzaleen Topaguneak sortutako proiektu honen helburuetako bat, euskarazko sortzaileen lanak ezagutaraztea



Aurtengo Laburbira 9 film laburrez osatuta dago. Tartean da "Mamarro". Igande honetan, 18:00etatik aurrera Sutegin.

## NOAUAK ANTOLATUTA

**"Helburuetako bat euskarazko sortzaileen lanak ezagutaraztea da"**

da. Horrela, euskaraz ekoizten jarraitzeko aukera zabaldu nahian. Bestalde, ikusleak hemengo sorkuntza hauez gozatzeko ere bada helburu bat. Gainera, Sestaoko Udal Euskal-

tegia hasi eta Izarrako Kultur Etxean amaitzen den zirkuitu hau ez da Euskal Herrian zehar bakarrik ibiliko; Valladolid, Valentzia, Londres eta Paris ere bisitatuko ditu.

## Bederatzi film labur ikusteko aukera

### "Gau beltza"

"Gau beltza" izenburuarekin datorkigun filma euskaltzaleen mugimenduan lan egiten duen Euskaltzaleen Topagunea taldeak aurkeztu du. Filman, jai euskaldunen garrantziaz jabetu eta hori berrasmatzeko bidea abiatu duten jai batzuetan murgilduko dira.

### "Urak dakarrena"

Lau ikaslez osatutako Marilyn taldearen filma da hau. Hondartzarako bidean bi neskek topatutako zorro batek gordezten dituen misterioei buruz hitz egiten du.

### "Anti"

Munduko Gerraren biharamunean, haurrek jasandako zigor eta umilazioak jorratzen ditu Josu Martinezen filmak, euskaraz hitz egitea debekatuz.

### "Tigre bat"

Amaia San Sebastianek "Tigre



Amaia San Sebastian "Tigre bat" filma aurkezttera hurbilduko da Sutegira.

bat" filma aurkeztuko digu. Emakumearen gorputzari buruzko eta berari atxikitzen zaizkion etiketei buruz jardun du.

### "Pil pil"

Kristina Zoritak, berak bizitako gertaera batean oinarrituta filma eskainiko digu: "Pil pil". Hainbat zinemalditan estreinatutako film honek, afari luze baten ondoren polizierekin

izandako lehia bati buruz hitz egingo digu.

### "Mamarro"

"Umeek eta mozkorrek ez dute gezurrik esaten", nahiz eta esaera zaharrak hala esan, Ibon Iza Totorikaren filmak "batzuetan jolasak joko" bihurtzen direla adierazi nahi digu.

### "Kateak"

Yolanda Mazkiaranek "Ka-

teak" film laburrean, Euskal Mitologiako andereek jasan izan dituzten eraso handiez hitz egingo digu.


### "Jauzi bat eta prixt"

"Jauzi bat eta prixt" filma Maitane Eyheramonhorena da eta inguratzen duenari buruz gogoeta egiteko aukera ematen dio.

Irudi eta dantzaren bidez ondare, kultura eta feminismo familiaren kontuak islatu nahi izan ditu.

### "Harria herria"

Azken film laburraren izenburua "Harria herria" dugu. Dimegaz Kultur Elkarteko Janire Etxabe gidoilariaren pasioa uztartzen duen dantza bertikalean guztiz murgilduta dabil. Bere pasio hori adierazi nahi izan digu laburmetraia honetan, "dantzaren edertasuna harrobiko horma lakarrak leunduz".



*Usurbilgo emakumeok elkar ezagutu,  
topatu, zaindu, hausnartu,  
konspiratu, maitatu, eraiki  
eta burujabetzeko gunea.*

**EMAKUMEEN ETXEAREN AURKEZPENA**

MARTXOAREN 14AN

12:30EAN

SUTEGIKO ERAKUSKETA GELAN



# “Guztion artean Usurbil feminista bat eraiki dezagun!”

**M**ugimendu feminista jorratzen ari den bideak atzera bueltarik ez du, eta oso argi utzi zuten Usurbilgo emakumeek Martxoaren 8an. Herrian inoiz ikusi gabeko iazko planto historikoak segida izan du aurtengoan ere, “M8 egunero da” taldeak iganderako deitu zituen ekimenekin.

Antolatu, indarrak bildu eta borroka feministara batzeko deia jasotzen zuen goiburua zeraman manifestazio zaratsua eta jendetsua egin zen herrian barrena. Belaunaldi eta eremu ezberdinetako emakumeak ikusi genituen; amona, ama alabak, ahizpak, lagun taldeak... Denak borroka feminista aurrera jotzeko bide bakarra dela nabarmenduz.

Amaieran frontoian plazaratu zuten adierazpenean, komunitate feminista konprometitu bat eraikitzea deitu zituzten Usurbilgo emakumeak. “Antolatzaera, elkarrekin hausnartzera, ahizpatasunera. Guztion artean Usurbil feminista bat eraiki dezagun! Usurbilgo emakumeok ere aske izan nahi dugulako!”.



Iazko planto historikoak segida izan du aurtengo martxoaren 8an.

## ‘M8 EGUNERO DA’ TALDEA

**“Antolatu, feminismora batu, gora borroka feminista!”**

### Ostikada, sistema heteropatriarkal kapitalistari

Martxoaren 8an bertan eraman zituzten aldarriok praktikara. Herriko emakumeek kale eta plazak hartu zituzten egun osoz. Hausnarketa saioarekin hasi zuten eguna, erritmo bizigarriekin dantzan, eta Kafe Tertuliako kideen parodiarekin

amaitu zuten. Neska gazteek pairatzen dituzten biolentziak irudikatu zituzten. Egungo sistema heteropatriarkal kapitalistaren injustiziei ostikada ederra eman zieten ekitaldian zehar. Egungo sistema errotik irauli eta eraldatzeko beharra plazaratu zuten. “Borroka eguna da, emakume langileok jasaten dugun zapalkuntza salatu eta gizarte eredu feminista aldarrikatzeko” eguna, baita “sistema errotik irauli nahi dugula adierazteko eguna” ere. Egungo errealitatea iraultzeko

elkarrekin bildu eta borroka feministaren bueltan antolatzeko deia egin zuten.

Horregatik gogorarazi zuten, “gu guztiok beharrezkoak gara, ez zaitez etxean geratu. Antolatu, feminismora batu, gora borroka feminista!”. Egunero, eta egunero moduan, Martxoaren 8an.

Borroka feministaren bideetik hainbat aurrerapauso eta lorpenak erdietsi direla nabarmenduta, bide beretik segitzeko deia egin dute. “Argi daukagu, bide hori emakumeen arteko antolakuntzaren eta borrokaren bitartez egiten jarraitu behar dugula”, sistemak sakabanatuak, zatituak eta isolatuak nahi dituztela ohartaraziz. Antolatuz eta saretuz egin nahi dute bidea. Gaur egun hainbat eremuetan egiten ari diren moduan.

### Zozketa

Euskal Herriko Bilgune Feministak jostailu erotikoak zozkatzeko hainbat errifa saldu ditu Usurbilen. 902 izan da zenbaki saritua. Saria jasotzeko bidea, [bilgunefeminista.eus](http://bilgunefeminista.eus) ataria.

## M8ko ekarpenak

Migranteak, emakumeen antolakuntza eta “erabakitzen dudana izango naiz” aldarria ardatz hartuta, partekatze saio batekin hasi zuten Martxoaren 8a frontoian. Egunaren esanahiaz hausnartuz, besteak beste, ondoko ekarpenak egin zituzten. Usurbilgo emakumeentzat Martxoaren 8ak honakoa esan nahi du:

- Indarra, sua, elkartasuna, borroka, antolakuntza, belaunaldi ezberdinen harreman-tzea.
- Emakumeok hemen gaudela

erakusteko eguna.

- Emakumeak beraien eskubi-deen alde borrokatzea ateratzen diren eguna.
- Injustiziatik justiziara iristeko borroka eguna.
- Gizarteak ikusteko emakumeok gabe ezin duela aurrera segi.
- M8 egunero da! Zuriketa morerik ez!
- Gizonei begiak irekiarazteko modu bat.
- Denok bat, borroka bat.
- Emakumeen arteko konplizitate eta elkartasuna.

- Eredu berriak! Heziketa beharrezko garrantzia.

- Kate ikusezina.
- Denak batera indartsuak eta geldiezinak gara.
- Erradikalak.
- Ahizpatasuna.
- Ikusgarritasuna.
- Kaleak hartzea.

### Datozen deialdiak

#### Martxoak, 13, ostirala

- 18:30 Berriaren Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketako irabazle Maider Usabiagaren “Bidaia intimo eta gogoanga-

ria Alpeetan barna” solasaldia Sutegi udal liburutegian.

#### Martxoak 28, larunbata

- 9:00-14:00 (goizekoa betetzen bada 15:00-20:00 artean bigarren saioa) “Jada maitasunagatik sufritzen ez duten emakumeak: autoestimua eta autozaintza feminista” tailerra Coral Herrerarekin Potxoenean (erdaraz). Izen ematea doan, bideotatik: [parekidetasuna@usurbil.eus](mailto:parekidetasuna@usurbil.eus)/ 943 377 110. Antolatzaileak: M8 taldea eta Usurbilgo Udala.



Martxoaren 8ko irudi eta albiste bilduma osoa [noaua.eus/bereziak](http://noaua.eus/bereziak) atalean.

# Erraustegien arriskuez ohartarazi dute beste behin ere OEIT-ko medikuek

Osasuna eta Errakusketak Ikerketa Taldeko (OEIT) kide eta mediku Xabier Mitxelena eta Jose Cruz Ruiz de Villandiegok agerraldia egin zuten otsaila amaieran Potxoenean. Erraustegiek osasunean duten eragina aztertzen duten azken ikerlanen berri ematera etorri ziren. Ondorio argi bat azaleratu zuten beste behin; erraustegiek herritarren osasunerako arriskutsuak izaten segitzen dute oraindik.

“Gaur, hondakinen arloko erakundeen kontrolik ezaren ondorioei buruzko krisi batean, osasun-kolektiboaren ahotsa altxatu nahi dugu berriz ere”, nabarmendu zuten OEIT-ko kide eta mediku Xabier Mitxelena eta Jose Cruz Ruiz de Villandiegok Potxoenean.

Eta hitz egiten hasi orduko, berehala ahotan hartu zituzten erraustegiak dakartzaten arriskuak. Gaixotzeko arriskua areagotzen duten ikerlanak hain zuzen. Nazioarteko bi ikerlanen emaitzak ekarri zituzten Potxoenean. Lehenengoa,



Jose Cruz Ruiz de Villandiego eta Xabier Mitxelena, OEITeko kideak Potxoenean.

## OEIT MEDIKU TALDEA

**“Jaiotzetiko malformazioak jasateko arriskua areagotu egin da ikertutako erraustegien inguruan”**

Britainia Handian landutakoa. “Jaiotzetiko malformazioak jasateko arriskua areagotu egin da ikertutako erraustegien inguruan bizi diren biztanleen artean; zehazki, bihotzeko eta gerru-aparatuko malformazioak”, berri eman dute OEIT-ko kideek.

Bigarren azterlana, Italiako erraustegi bati buruz landu

zutena. Ez edozein ikerlan, azterlan honen ondorioz, iker-tua izan zen planta ixtea erabaki baitzuten bertako agintariak. “Hilkortasun totalaren gorakada nabari da, minbizi linfatikoagatik, arnas gaixotasunengatik eta gaixotasunardiobaskularrengatik, aztertutako erraustegiaren ingurueta bizi den biztanlerian”.

## Akatsak, erraustegien jabeek finantzaturiko ikerlanetan

Aipaturikoak ez dira erraustegiek osasunerako ekar ditzaketen kalteez ohartarazten duten ikerlan bakarrak. OEIT-ren esa-

netan, “osasuneko afekzio horietako batzuk bat datoz erraustegi modernoengatik inguruan berriki egindako beste ikerlan batzuen ondorioekin edo Munduko Osasun Erakundeak 2016an hondakinak eta osasunari buruz argitaratutako txosten batean aipatutakoarekin”.

Argitu nahi izan zuten, ez dituzte aztertu erraustegiaren jabe diren enpresek finantzaturiko ikerketak, “haitako askoren diseinuan ikusitako akatsak eta finantzaketaren jatorriaren ondorioz sor daitezkeen interes-gatazkak direla eta”.

Zehaztu zuten, “ikerlan hauetan ere akatsak antzeman ditugu diseinuan, eta dagoeneko egileei jakinarazi dizkiegu. Akats horiek zalantza jartzen dituzte ikerlanen ondorioak. Aipaturiko ikerlan hauetan gehienbat dietaren bidezko esposizioa duten kutsatzaileak monitorizatzen dira. Erraustegiaren eraginpean dagoen tokiko produktu gutxi edo batere ez kontsumitzeak azal lezake parte-hartzaileen laginetan aztertutako kutsatzaileak ez igo izana”.

## Hondakinak erre gabe eta kutsatzaileak sortu gabe kudeatzeko eskaera Foru Aldundiari

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) ezagutzera emandako azterlanek agerian utzi dituzte, erraustegiek osasunerako ekar ditzaketen arriskuak. Datu eta emaitza hauen aurrean, eta medikuak diren heinean, ohartarazpen argia egin zuten Potxoenean: “Medikuak garen aldetik, Gipuzkoako herritarrak garen aldetik, esan dezakegu hondakinak erraustuz eta ondoren sortutako zepak eta erraustak zabortegean metatzeak are ge-

hiago kaskartuko duela arnasten dugun airearen eta gure elikagaiak landatzen ditugun lurzoruen kalitatea, eta horrek guztiak herritarren gaixotzeko arriskua areagotuko du, aipaturiko ikerlanek eta zorrotasun zientifikoz aztertutako gehienek agerian uzten duten bezala”.

## Hondakinak erre gabe kudeatu


Erraustegiek herritarren gaixotzeko arriskua areagotzen dutelako, Foru Aldundiko agintariari eskaera argia egin

zieten: “diputazioako agintariari eskatzen diegu hondakinak kudea ditzaten osasunean ezezik ingurumenean eta kliman ere”.

Hondakinak erre gabe eta kutsatzaileak gabe kudeatu ditzatela galdegin zuten. “Kudeaketa horrek, jakina, hondakinen errausketa eta ondoren sortutako zepen eta errausten zabortegean metaketa bertan behera uztea eskatzen du. Egin dezatela benetan Gipuzkoako Ingurumen Gunea deitzen den

horretatik, hondakinak erre gabe eta ingurumenarentzat eta batez ere Gipuzkoako biztanleentzat kutsatzaileak sortu gabe tratatzeko tresna bat”.

Klase politikoari eta erakundeentzat ere osasuna zeharlerroa izan dadila haien politiketan. “Osasuna beren politika guztietan txerta dezaten, ingurune osasungarriagoak sortzeko eta gaixotasunak prebenitzeko, Munduko Osasun Erakundearen gomendioari eta gizartearen nahiari jarraiki”.



**INTZA**  
ILEA PAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

UDABERRIARI  
BEGIRA  
AURPEGI ETA GORPUTZEKO  
TRATAMENDUAK

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

Eguerdian irekital Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

# Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!

Edizio bateratua [Diseinu berritua](#) Erreportajeak  
[Kolaboratzaile berriak](#) 'Gorabeherak' websaila...

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

**DOAN**  
Euskarazko aldizkari  
digitala, deskargatu  
astero zure mugikor  
edo tabletan



# Salbatore elizako organoa omenduko dute asteazken honetan

**A**urtengo Soinurbil jaialdiko izarra Salbatore Elizako organoa da. Herrira ekarri zuteneko mendeurrenaren aitzakian, omenaldia egingo zaio asteazken honetan. Bestelako ekitaldiak ere iragarri dituzte asteburu honetarako.

## Martxoak 11 asteazkena

■ 19:00 “100 urte organoa Usurbilen” emanaldia Salbatore Elizan: organoa, txistua, Irriu eta Zumarte Abesbatzak.

## Martxoak 12 osteguna

■ 18:30 Altsasuko Musika Eskolarekin trukaketa Sutegin.

## Martxoak 13 ostirala

■ 19:30 “Broken Brothers Brass Band” taldearen kalejira.



Irriu eta Zumarte Abesbatzek hartuko dute parte Salbatore elizako organoaren omenaldian.

## Martxoak 14 larunbata

■ 11:30 “Trakamatraka” emanaldia Artzabalgo plazan.  
■ 18:30 Illunbe Orkestra Sinfonikoa Salbatore Elizan.

## Martxoak 15 igandea

■ 12:00 Sakanako Haize Be-

riak musika bandarekin kalejira. 13:00ean kontzertua frontoian.

## Ekainak 3 asteazkena

■ 18:30 Altsasuko Musika Eskolarekin trukaketa Altsasuko Iortia Kulturunean.

## Emozioei buruzko hitzaldia Udarregi ikastolan


Haurrek emozioak nola bizi dituzten eta nola adierazten dituzten ulertzea ezinbestekoa da, “ondoren gurasoak helduak garen heinean, haurren bizipenak jaso eta bideratzen laguntzeko”. Olatz Berastegik eskainiko duen hitzaldian “haurren mundura gerturatzeko aukera izango dugu, eta guraso bezala nola gerturatzeko garen hausnartuko dugu eta gure burua hobeto ezagutzeko, haurri erantzun egokiagoa emango diogu”.

## “Emozioak familian”

■ Martxoak 17 asteartea.  
■ Arratsaldeko 17:00etan.  
■ Ikastola Gorrian.

Antolatzailea: Hitz-Aho guraso elkarte.

## Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2019 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2019ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdín-berdín ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.


OTSAILAK 27 - MARTXOAK 12

NAFAR HEGOALDEKO UZTA  
ESKUTIK ESKURA

GURE HAUTUEZ  
**HARRO**

ESKATU NAFARRIOA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA - 5 LITRORIKO BILDOETAN - ETA ARROZA, PASTA ETA KONTSERBAK - 12 ONTZIKO SORTETAN - EUSKARAZ ETIKETATUTA ETA ERKOIZLEAREN ZATORRIZKO PREZIOAN

WWW.ERRIGORA.EUS







Ainhoa Azpirotz Eizmendi

**P**asa da aurtengo martxoaren 8a eta utzi duen zaporea utzi du. Balorazioak, neurketak, zenbakiak eta konparazioak etorri dira eta etorriko dira oraindik ere: iaz baino gehiago, gutxiago edo antzekoa izan den, greba deitzearen eta ez deitzearen arteko aldea, igandea egokitu izanaren ondorioak eta abar luze bat. Egin beharreko balorazioak izango dira, aurrea begira nondik eta nola jo asmatzeko. Eta hortxe dago gakoetako bat: azken urteetan sortu den energiarekin zerbait egin beharra dago itzali baino lehen. Olatu baten gainean sentitu gara, baina ez dakigu olatuak nora eramango gaituen, non bukatuko dugun. Horregatik da garrantzitsua aurten egindako deia: "Antolatatu indarrak, batu borroka feministara".

Antolatatu. Borroka feministak milaka aurpegi ditu, landu beharreko adar asko. Borroka hori egiteko milaka modu daude, hasi eguneroko txikitasantetik eta ekitaldi handietaraino; martxoaren 8an zein egunero. Bakoitzak bere esparrua topatuko du, "borrokarako" bere lekua, denak zilegi eta errespetagarriak. Baina denak elkartzea ere garrantzitsua da, emakume bakoitzak jartzen duen hondar alea gainerako emakumeen hondar alearekin pilotatzea; eta horrela, gure olatuarentzako

## Martxoaren 8ko altxorra: borobilean partekatzen



"Belaunaldi desberdinetako emakumeak bildu gara eta bakoitzak geuretik, geure esperientziatik hitz egin eta entzun diegu aldamenean eta aurrean genituen gainerako emakumei, zintzotasunez, elkartasunez eta konplizitatez".

### AINHOA AZPIROTZ

**"M8 egunero da" taldeak antolatu duen frontoiko borobileko partekatze saioa izugarria izan da. Eskertzekoa eta zoriontzekoa. Ederra. Hunkigarria. Altxor bat. Indartzen gaituen arma bat**

hondartza eder bat osatzea, arroken kontra jotzeko partez hondartza gozo eta emankor batean lehorreratu gaitzen.

Eta horretarako gai gara, emakumeok bai. Aurten eta iaz martxoaren 8an herriko frontoian egin diren saioek hori erakutsi dute. Belaunaldi desberdinetako emakumeak bildu gara eta bakoitzak geuretik, geure ikuspegitik eta geure esperientziatik zintzotasunez hitz egin eta entzun diegu aldamenean eta aurrean genituen gainerako emakumei. Emaku-

meen bizitza zeharkatzen duten gaiak izan dira hizpide, denoi ukitzen digutenak gutxi edo gehiago, eta hor, denok ahizpak sentitu gara. Oso gauza xumea da, berez: esperientziak partekatzea. Baina zenbaterako ematen duen... uste baino gehiago! Gazteek helduagoen bizipenak ezagutzeko, helduek gazteagoen errealitatea deskubritzea, urteetan errepikatzen diren estereotipoen jabetzea, kezkez eta bel-durrez hitz egitea, gizartearen presioak bistaratzea... Master batean adina edo gehiago ikasi dugu aurten ere. Ikuspegia irekitzen lagundu digu eta horrek asko laguntzen du egunerokotasunean betaurreko moreekin bizitzen.

Eta hori dena borobilean, gertu gertukoak ez diren aurpegi berrien aurrean, ahots berriak entzunez, inor gutxietsi gabe, jarrera irekiarekin, enpatiarekin... Desberdintasunak desberdintasun, denok

partekatzen dugulako gauza bat: emakumeak izatea. Eta horrek konplizitatea sortzen du. Begiarekin keinu egitean sortzen den konplizitate hori. Badakigu elkar ulertzen dugula, elkar babestuko dugula, elkarri lagunduko diogula eta elkar zainduko dugula.

Ekimen ugari eta askotari-koak egin daitezke "katerik gabe katean" antolatzeko eta bizitzeko, baina iaz bezala aurten ere Usurbilgo "M8 egunero da" taldeak antolatu duen frontoiko borobileko partekatze saioa izugarria izan da. Eskertzekoa eta zoriontzekoa. Ederra. Hunkigarria. Altxor bat. Indartzen gaituen arma bat. Elkartasuna, indarra, ahizpatasuna, batasuna, borroka, saretzea, aldarrikapena... izan dira parte hartu duten emakumeek aipatutako hitzak. Ahaldunduzko tresna oso baliotsua da. Galdu behar ez den ekimen bat. Are gehiago, indartu egin behar dena.

Zenbatetan esan izan ote zaigu emakumeok asko hitz egiten dugula, ez garela isiltzen, hitz eta pitz aritzen garela eta abar, beti mespretxuz, lotsatzeko moduko ezaugarri negatibo bat balitz bezala. Bada ez, zintzotasunez, elkartasunez, enpatiaz, eta konplizitatez hitz egiten badugu, oso arma baliagarria da, ahaldunduzko balio diguna. Beraz, segi dezagun hitz egiten eta partekatzen!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

**ZALDIGAIN**

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

Okidegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

ADA  
-MASAJEAK-

633 36 22 33  
erreka-txiki 1, USURBIL

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

# Zubietako Learritza pasealekua egokitzen ari dira

Bizikletentzako eta oinezkoentzako moldatuko dute Learritza bidea, eta orain arte bezala, mugatua izango da ibilgailuentzako, bertakoentzat izan ezik.

Zubietako Learritza pasealekua berregokitzen ari dira Donostiako eta Usurbilgo udalak. "Lanen gidaritza Donostia ari da egiten, bidearen zati handiena Donostia aldekoa baita; dena den, Usurbilgo Udala ere obrak gertutik jarraitzen ari da", udal iturriek aditzera eman dutenez.

## Bi udalen artean ordainduko dituzte lanak

Bi udalen artean ordaindu dituzte lanak: Usurbilek 80.000 euro ipini ditu eta Donostiakoak 145.769,45 euro.

## Hiru hilabeteko epean

Otegi Gaztañaga enpresa ari da lanean: obrak hasita daude, eta hiru hilabeteko epea beharko dute bukatzeko.



Obrak hasita daude eta hiru hilabeteko epea beharko dute bukatzeko.

## BI UDALEN ARTEAN

**"Udalak 80.000 euro ipiniko ditu; Donostiakoak 145.769,45 euro"**

**75.900 euroko dirulaguntza, Mikel Laboa-Artzabal arteko bidea peatonalizatzeagatik**

Lehenengo asteko NOAUAn aipatu genuenez, Mikel Laboa plaza eta Artzabal batzen dituen bidea oinezkoentzako bihurtzeko lanak lizitaziora atera dira. Martxoaren 11ra bitartean

zuten enpresek lehiaketara aurkezteko epea.

Asteon jakin dugu Mikel Laboa plaza eta Artzabal arteko bidea oinezkoentzako bide izan dadin dirulaguntza jaso duela Usurbilgo Udalak. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak "hiri-inguruneetan zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko". Laguntza honi esker, 75.950,86 euro jasoko ditu Udalak, alegia, obra osoaren (151.901,71 euro) kostuaren %50.

## Zuntza sartu behar dute Troia inguruan eta trafikoa bideratzeko semaforoak jarriko dituzte N-634 errepidean



Txikiardi inguruan bakerik ez da azkenaldian. Zoladura hobetzeko lanak, Troia pareko semaforoa eta zebrabidearen ezarpena, ohiko istripuak... Beti bada zerbait Troia inguruan. Orain, zuntza izango da gidarien pazientzia proban ipiniko duena. Datoren egunetan zuntza sartuko dute N-634 errepidean, Troia inguruan, eta semaforoak jarriko dituzte. Irudia: Usurbilgo Udaltzaingoa.

## "Badator Ziortzako kanpaldia 2020"

Ziortza Gazte Elkarteak antolatzen duen kanpaldia uztailean izango da baina orain da izena emateko garaia. Martxoaren 13tik 22ra egin behar da, email bidez.

Lagun arteko abentura bila zabilta? Aurten, hauek izango dira txandak:

■ 1. Txanda (DBH 3-4):  
Uztailak 7-19.

■ 2. Txanda (DBH 1-2):  
Uztailak 19-29.

Aurre izen-ematea martxoaren 13-22 bitarte egongo da zabalik. "Izena emateko bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbide elektronikora gaztearen izen-abizenak eta zein mailatan dagoen adieraziz", Ziortzatik aditzera eman dutenez. Plazak mugatuak izango dira.



Uztailean izango da kanpaldia baina izena orain eman behar da.

## Errenta aitortpeneko zerga informazioa jasotzeko aukera

Iazko errenta aitortzeko garaia ate joka dugu. Apirilean abiatuko da kanpaina berria. Martxoaren 13tik aurrera zerga informazioa eskuratzeko bideak zabalik izango dira. "Gipuzkoatarian" egoitza.gipuzkoa.eus web orrialdetik, posta bidez, Ogasuneko bulegoetara joanda edo telefono bidez jaso ahalko da.

## Informazio gehiago:

gipuzkoa.eus /943 113 000.

# Datorren oporraldia kirola eginez bizitzeko deia

Urteotako ildoari jarraiki, kirol jarduera eta jolas ezberdinez gozatzeko aukera ezin hobea eskainiko du Usurbil F.T.-k Udaregi Ikastolaren eta Usurbilgo Udalararen laguntzaz datozen oporretan, apirilaren 14tik 18ra (asteartetik larunbatera) 10:00-13:00 artean. Lehen Hezkuntzako 1-6 maila arteko, hau da 6-12 urte arteko ikasleei zuzendua dago.



Harane izango da ekimen honen kokagunea. Futbola izango du ardatz, baina "kirolaren onurak goraipatzen ditugu orokorrean". Argibide gehiago Haraneko bulegoan jaso daitezke.

## PAZKO ASTEAN

**6-12 urteko gaztetxoek kirol jarduera ezberdinez gozatzeko aukera izango dute apirilaren 14tik 18ra**

Harane izango da ekimen honen kokagunea, baina herriko beste hainbat guneean ere ibiliko dira parte hartzaileak; Kiroldegian, frontoian, herrian zehar... Futbola izango du ardatz, baina "kirolaren onurak goraipatzen ditugu orokorrean. Horregatik, ekintza honetako eskaintza anitza eta zabala izango da": eskubaloia, jolas tradizionalak, futbola, zirkoa, eskupilota, herri kirolak, saskibaloia... Garrantzitsutat

jotzen dute adin tartetan honetan lehiakortasuna alboratuta, "haurrek jolasean gustura pasatzea".

Usurbil F.T.-ren datozen oporretako eskaintzan izen

emateko orria bete eta 50 euro ordaindu beharko dira. Prezioaren barne izango da aseguruua. Ordainketa kontu zenbaki honetan egin beharko da: 2095 5069 06 1071029051 (Kutxabank). Izen emate orria eta ordainagiria Usurbil F.T.-ren Haraneko bulegoan utzi beharko dira, martxoaren 24an edo 27an 17:30-19:00 artean. Argibide gehiago Haraneko bulegoan edo 688 62 10 07 (Jon Mikel) telefono zenbakian.

## Nordic walking irteera, Igeldotik Usurbilera



Argazkian diren lagunek Donostiako Club Vasco De Camping taldearen irteera batean hartu zuten parte.

Donostiako Club Vasco de Camping taldekoak ez dira geldi egoitekoak. Ostegunetan pasierak antolatzen dituzte eta igandee-

tan ibilbide luzeko irteerak. Adinoko jendea izaten da eta *nordic walking* estiloko ibilaldiak egiten dituzte. Otsailaren 26an,

Igeldoko kanpingetik abiatu ziren eta Usurbileraino iritsi ziren oinez. Argazkian dituzte parte-hartzaileak. 53 lagun batu ziren.

## Huizi-Landa, Trinkete Txapelketako txapelkunordeak

Pagazpe Pilota Elkarteko bi jokalariek urteak daramatzate elkarrekin jokatzen. Bikote sendoa osatzen dute. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finalera iritsi ziren. Urrietako Loitegi-Esnaolaren aurkako norgehiagoka larunbatean jokatu zen Irurako Ametsa frontoian. 40-31 nagusitu ziren urrietarrak.



Mikel Landa eta Enrike Huizi, artxiboko irudi batean.

## Futbol partidak

### Martxoak 14, larunbata

■ 10:00 Infantil mutilak:

-Udaregi Usurbil FT A  
-Intxurre KKE

■ 11:45 Kadete neskak:

Usurbil F.T.-Oiarzun KE

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Aretxabaleta KE

■ 17:45 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Eibartarrak FT

## Eskubaloia partidak

### Eskola Kirola

#### Martxoak 14, larunbata

■ 11:30 Infantil neskak,

2. fase finala:

Udaregi A-Kalari Pulpo EK

### Usurbil K.E.

#### Martxoak 14, larunbata

■ 16:00 Jubenil neskak, Udaberri Tornea:

-Usurbil K.E.

-Astigarraga Gys Sport Elgoibar

■ 17:45 Jubenil mutilak, Euskal Liga (Euskadiko Txapelketa):

-Usurbil K.E.

-Leizaran Eskubaloia

■ 19:30 Senior mutilak

(Gipuzkoako Txapelketa):

-Usurbil K.E.

-Pizzeria Salento Elgoibar

#### Martxoak 15, igandea

■ 11:30 Kadete mutilak Territoriala, Diputazio Tornea: Usurbil K.E.-Hiru Thermik Lehoiak Aloña Mendi K.E.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Usurbilen, kaxkoxan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromezua. 661115222.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berritua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus  
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

**Alokairuan**

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoak 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

**MOTORRA**

**Salmenta, garajeak**

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko

taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar

baduzu ez izan zalantzarik ditzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetakok, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk



**Zorionak Iera!** Gure etxeko tximeleta handiak, martxoaren 11n, 12 urte bete ditu!! Ondo ondo ospatu dugu zure egun handia! Txokolatzeko muxu asko asko familia osoaren partez.



**Zorionak Anei!** Martxoaren 13an 10 urte beteko dituzu. Muxu pila bat senide eta lagunaren partez!

**Heriotzak**

**Rogelio Alberto Esquivel Del Muro**  
Martxoaren 2an hil zen 48 urterekin



**Prudencio Egileta Martinez Delagran**  
Martxoaren 4an hil zen, 85 urterekin



**Jose Mari Beristain Inchausti**  
Martxoaren 7an hil zen, 68 urterekin



gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa

ta lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxe-

ko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

#### BESTELAKOAK

Isabelita Mandarina Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	.943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	.943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	.900 776 776	Taxia (Angel).....	.607 928 770
Udaltzaingoa.....	.943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	.677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	.943 370 148	Eusko Tren.....	.943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	.697 919 516	LurraldeBus.....	.943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	.943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	.943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	.943 361 215	Anbulategia.....	.943 362 013
Bake Epaitegia.....	.943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	.943 376 076
Udarregi Ikastola.....	.943 361 216	Iturralde botika.....	.943 363 395
Haur Eskola.....	.943 374 061	DYA.....	.943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	.943 364 600	Gurutze Gorria.....	.943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	.943 372 077	Emergentziak.....	.112
Hastapen tailerrak.....	.943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	.900 840 111 / 016
KZgunea.....	.943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	.943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	.943 372 498	Kutxabank.....	.943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	.943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	.943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	.943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	.943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	.607 609 379	Banco Popular Español.....	.943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	.943 365 249	BBVA.....	.943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	.943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	.943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	.943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	.901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	.692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	.902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	.943 361 239	Telefonica.....	.1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	.943 360 321	Euskaltel.....	.900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 12** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 13** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 14** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 15** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 16** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 17** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 18** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

## Martxoak 12 - Martxoak 22

**Osteguna 19** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 21** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 22** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
CASTILLA-LARBURU  
URBIETA KALEA, 7 HERNANI  
943552941

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda martxo

## 13 ostirala

- **Maidar Usabiagaren Alpeetako bidaiaren kontakizuna** 18:30ean Sutegin.
- **Soinurbil: Broken Brothers Brass Band**, 19:30ean Usurbilgo kaleetan.

## 14 larunbata

- **Soinurbil: "Trakamatraka"**, 11:30ean Artzabalgo plazan.
- **Emakumeen Etxea sortzeko parte hartze proiektuaren aurkezpena**, 12:30ean Sutegin.
- **Soinurbil: Illunbe Orkestra Sinfonikoaren kontzertua**, 18:30ean Salbatore Elizan.

## 15 igandea

- **Soinurbil: Haize Berriak-Sakanako Musika Banda**, 12:00etan Kalean; 13:00ean Frontoian.
- **Laburbira**, 18:00etan Sutegiko auditorioan.

## Maidar Usabiagaren Alpeetako bidaiaren inguruko kontakizuna

**M**aidar Usabiagak Berria egunkariko Bidaia eta Mendi Kroniken lehiaketako saria irabazi zuen iaz. "Alpeetako Cervino eta inguruetara egin zuen bidaia idatzi zuen horretarako, eta oraingoan, argazkiak lagun, hori bera aurrez-aurre kontatuko digu", Sutegi udal liburutegitik aditzera eman dutenez.

### Martxoak 13 ostirala

- Ordua: 18:30ean
- Non: Sutegin.
- Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.



Maidar Usabiagak Berria egunkariko Bidaia eta Mendi Kroniken lehiaketa irabazi zuen iaz.

## "Trakamatraka", Artzabalgo plazan

Trakamatraka musika eta birziklatzea, sormena eta irudimena, musika aniztasuna eta ingurumenarekiko errespetua bateratzen dituen proiektua da. "Musika ulertzeko eta maitatzeko beste modu bat", Zumartetik azaldu dutenez.

- Martxoak 14 larunbata.
- 11:30ean Artzabalgo plazan.

## Sagarrondotik sagardora ikastaroa

Josu Osa fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketaz arituko da larunbat honetan, 9:00etatik aurrera, Potxoenean.

- Izen-ematea: 943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com  
alkartasuna.eus
- Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagarki, Bizi Sagardoa eta Udala.

### Datozenak



## Iñorkiñak taldearen bideoklip grabazioa

Iñorkiñak taldeak bere "Para-Parixen" abestiaren bideoklipa grabatuko du martxoaren 21ean Txokoaldan. Grabazioan parte hartzeko jendea behar dute. 17:30ean Erroizpe elkartearen batzeko deia egin dute. Jan edana eskainiko da.

Apirilaren 24an bestalde, iluntzeko 20:00etan Antiguako Doka kafe-antzokian kontzertua eskainiko du taldeak, Banda Bassottirekin batera.

## Munduko dantza estilo ezberdinen erakustaldia

Warda Mallal Dantza taldeak antolatzen duen jaialdian Gipuzkoako leku ezberdinetako taldeek hartuko dute parte.

### Martxoak 22 igandea

- 17:45ean Sutegin.
- Sarrera: 5 euro.



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

**943 36 91 39**

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



**Otar-Goxo**  
Elizkargaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil



**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

# OSASUN GIDA 2020



Irati Ibargoien  
FISIOTERAPIA-OSASUNA

### PSIKOLOGIA

- Terapia individualak
- Mindfulness

### PILATES TERAPEUTIKOA

- Individuala
- Taldetakoa

### BESTE TERAPIA MOTAK

- Presoterapia

### FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak
- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM (fibrolisis instrumental miofascial)

943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ez. USURBIL



**USURBIL**  
OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:  
lente progresiboetan,  
irakurtzeko lenteetan  
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente pareta doan

# 2x1

PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatiakoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

## zenta

### ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etekez-etxeke zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin  
hitzarmena

[www.zenta.es](http://www.zenta.es)

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

## Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

[www.oinutsik.com](http://www.oinutsik.com) - 943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*sustraitu osasuna onetatik*

# Kima

MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa  
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

UrbilBox

# Txikientzako deskontua duten planak

12 urte arte



**SaltoPlan**<sup>TXIKI</sup>

**COSTAJUMP +  
HAURREN MENUA**

Vips Smart edo McDonalds

**11'5€**



+



**OcioPlan**<sup>TXIKI</sup>

**ZINEMA +  
HAURREN MENUA**

Vips Smart edo McDonalds

**8'5€**



+



UrbilBox-ak lortu ditzakezu [www.urbil.es](http://www.urbil.es) web orrialdean, Bezeroenganako Arreta Gunean edo honen ondoko Totem interaktiboan.

BLOG f t i



[urbil.es](http://urbil.es)